

2019-ko Zineklub topaketa Ondorio Txostena



Eguna partehartzaileen akreditazio banaketarekin hasi genuen, 34 elkarte desberdinetatik 58 pertsonak eman zuten izena bertan parte hartzeko, baina bertaratutakoak 52 pertsona izan ziren. Bertaratutako elkarteak hurrengoak izan ziren: Butak 21, Cinema Paradiso, Perseo, Nazioarteko zineklub federazioa, Estadio fundazioa, FAS, Goieniz, Kresala, Zinetogram, Ozzinema, Bergarako zinekluba, Legazpiko zinekluba, Atera, Noucinemart, Elsur, Surtsey, Banatu eta EQZE izan ziren. 10tan ireki ziren ateak, eta 10:30etarako lehen ekitaldia hasi genuen.

Eguna hasteko gerturatutakoei eskerrak ematearekin batera ekitaldia antolatzearen helburuak zeintzuk izan ziren azaldu genien, hau da lurraldeko zineklubak elkar ezagutzea, bakoitzak duen errealitatea hobeto ezagutzea eta dauzkagun erronkei aurrera elkarlanean nola aurre egin diezaiekegun ikustea. Egitaraua azaldu genuen; goizeko lehenengo ekitaldia gaur egungo egoera eta etorkizunari buruzko mahai ingurua, kaferako tartea hartu eta gero Nazioarteko zinekluben federazioko idazkaria den Julio Lamañak munduko zinekluben egoera eta elkarlanerako moduak azalduko dizkigu. Eguerdian denok batera bazkaltzeko parada izango dugu saretzeko aukera emanaz. Arratsaldean jarraituko dugu banatzaileen ikuspuntua eta berauekiko harremanak sendotzeko saioekin. Eguna bukatzeko Zineforum saioa izango dugu Costa Gavras-en 1982-ko "Missing" filmaren proiektzioarekin.



Eguneko metodologia partehartzailea izatea nahi genuela azaldu genuen, egunean zehar partehartzaile guztien aportazioak beharrezkoak direla egunak fruituak eman zitzaizkien.



Zinea webguneko Maialen Goñi izan zen mahai-ingurua gidatu zuena, planteatutako lehen gaia zineklubak aurkeztea izan zen, bertan azaldu ziren lehenengo antzekotasun eta ezberdintasunak. Denek jatorrizko bertsioan proiektatzen dugu, filmaren aurretik aurkezpen txikiak egon ohi dira, zineklubeko kideren batek aurkeztua, hau herri txikietan, Azkoitian adibidez iaz egiten hasi ziren. Guztiek diru-laguntzak jasotzen ditugu modu batera

edo bestera, batzuk deialdien bitartez, eta beste asko udalarekin zuzeneko akordioekin. Diferentzia handienak ondorengo solasaldian egoten dira, herri batzetan tabernan izaten dituzte eta ez zinema aretoan, zineklub batzuk beraiek gidatzen dituzte solasaldiak eta beste batzuk ordea saioko gonbidatuak ekartzen dituzte, lan hau izaten dela zailena adierazi dute. Filma bakoitzarekin gonbidatu egokia aurkitzeko filmarekin lotura zuzena edukitzea garrantzitsutzat jotzen da, lotura artistikoa duen norbait: zuzendaria, aktoreak, ekoizketan ibili den norbait, ... edo gaiari lotua dagoen norbait, filmak autismoa jorratzen badu autismo elkarteko norbait, edo dokumentala ikerketa psikologikoren batean oinarritzen bada, EHU-ko psikologia fakultateko norbait.



Maialenek plazaratutako bigarren hausnarketarako gaia zineklubak zer berezitzen dituen zinema areto komertzialetatik izan da. Agertu den lehen ideia, zineklubak eskola bat direla izan da. zinekluben solasaldietan ikuslegoan itsasargiak balira filma bakoitzean ikuspuntu eta foku desberdinak azaleratzen dira. Istorioaz haratago kalitatea, argia, irudian arreta jarri eta iritziak amankomunean jartzeko aukera eskaintzen dute. Eztabaidan agertutako beste ideia bat zinekluben lana zerbitzu publikotzat jotzea izan da. Kultura eta gizartearen arteko engranajea direlako zineklubak, gaurkotasun gaiak eta herritarrek elkartzen dituen piezak, eta aldi berean, inguruko sortzaile eta publiko zabalaren arteko bitartekariak direlako. Eztabaida sortu da filma azaldu behar den edo ez. Batzuek filma ez azaltzearen beharra azaleratu zuten, baina ideia ez dela filmak azaltzea ondorioztatu zen amaieran, bizitakoa amankomunean jartzea baizik.



Solasaldia aurrea joan den einean parte-hartzaileen artean ezagutzeko eta elkarlanerako grina badagoela nabaritu da, elkarre gehienek hitza hartu dutenean onartu dute eguna antolatzearen garrantzia eta elkarlan zubiak sortzeko beharra.

Orokorrean ondorioztatu dena hau da; zineklubek zinema komertzialetik kanpo dauden filmak eskaini behar dituela, zinema komertziala herri bakoitzean desberdin definituko dela jakinda. Pelikulen ondoren egiten diren solasaldiak jendarte orokorrean pentsaera kritiko bat sortzearekin, edo behintzat, bultzatzearekin lotua egon beharko lukeela. Eta ez kideon irudi intelektual bat irudikatzearekin. ez da horren garrantzitsua emanaldiaren osteko solasaldian zer esaten den, horretarako aukera ematea baizik. Publikoak bere iritzia plazaratzeko espazio bat izatea, egungo gizartean oso eskasak baitira gune horiek. Horregatik, zineklubek espazio horiek aldarrikatzen ditugu, ekintza demokratiko bat da, eta zinekluben egitekoa espazio hori bermatzea da.


Eguneko bigarren saioa nazioarteko zinekluben elkarteko idazkari nagusia den Julio Lamañaren hitzaldia izan da, bertan nazioartean dauden zineklub sareak dituzten proiektu desberdinak plazaratu eta bertan aurrera eramateko aukerak dauden aztertzea da helburua.



Hizlariak, partehartzaileak ahalduntze aldera Zineklubena kontinente guztietan dagoen fenomeno delako azaldu du, gizarte zibil antolatua delako. “Gu gara publikoa”, zinekluba definitzeko modu oso interesgarria delako. “Filmak guk ikusten ditugu, baina horrez gain, guk ekartzen ditugu, gure ingurukoekin konpartitu nahi ditugulako. Oso gauza erraza da, baita sublimea ere, film bat defendatu nahi dugulako. Izan ere, zinema arte bat da, baina badu alderdi herrikoi bat, sorkuntzari dagokiona, eta edonork du horren inguruan iritzi bat izateko eta iritzi hori zabaltzeko aukera”.

Beste herrialde batzuetan zineklub federazioek edo sareek dauzkaten proiektuak aurkeztu ditu, ondorio nagusi hauek ateratu ditugu hitzaldi eta solasaldiaren ondoren.

- 1) Urteroko txostenak, urte amaieran galdetegi bat pasatzen dute, eta bertan jasotako erantzunekin txosten bat plazaratzen dute, txosten hori da ondoren administrazioarekin negoziatzeko erabiltzen dutena.
Hau interesgarria da, Katalunian adibidez zinekluben saioek 60 pertsona biltzen dituzte batz beste eta saio komertzialek 8.
- 2) Zineklub sarean filmak barreiatzea, “La película dels cineclubs” eta “per estrenar” programak dira horren adibide, federazioak banatzaileekin adosten du aste batean herri desberdinetan pelikula beraren banaketa, prezioak gutxitu egiten dira eta zuzendaria aste hortan herri desberdinetako saioetan egoteko aukera dago.
- 3) Filmategiarekin kolaborazioak, beste herrialde batzuetan filmategiak dituen pelikulak herri desberdinetara zabaltzeko aukera dago, zineklubak eta filmategiak saioak elkarrekin antolatuz.
- 4) Zinekluben sariak, herrialde zinema jaialdi desberdinetan zineklub kideek osatutako epai-mahai bat egon hi da eta berak zinemaldi bakoitzean sari bat ematen du. Nazioartean Kixote sariak dira, Katalunian Miquel Porter I Moix sariak
- 5) Zineklub topaketak, zineklubetako kideek elkar ezagutzeko eta proiektuak garatzeko urtean herrialde bakoitzeko taldeek topaketak antolatzen dituzte, topaketak lan esparruak izateaz gain aisialdirako denbora ere uzten dute. Nazioarteko federazioa ere 2 urtetik behin biltzen da.
- 6) Ikuslegoaren formazioa, zinekluben funtzio garrantzitsuenetako bat ere hau da, ikuslegoa hezteko beste herrialdeetan zineklub sarrek ikastaroak antolatzen dituzte ondoren udal eta aldundiei eskaintzeko. Zinearekin zerikusia duten ikastaroak “Gu gara publikoa” ideia transmitituko duten ikastaroak.



Guzti honen inguruan elkarte desberdinetako kideek proiektu desberdinen garrantzia azpimarratu dute, batez ere sarea sortzeari, garrantzitsu ikusten dute, lehenik eta behin

gerturatu ez diren zineklubekin harremanetan jarri eta beraien kontaktua lortzea eta pixkanaka sare hori egonkortu eta sendotzea. Ondoren horrek ekarriko bait ditu programa desberdinak. Gaur egun sare hori birtualki sortzea ikusten da errazena, Facebook taldeak eta posta zerrendak aipatu dira.



Eguneko hirugarren saioa banatzaileekiko lotura izan da, 5 proiektu desberdin aurkeztu dira, bakoitzak bere negozio ikuspuntua aurkeztu du eta goizean irten diren ideiei buruzko iritzia eman, oso erraz ikusten dute gehienek proiektzio pakak antolatzen baditugu, prezio bereziak lortzea bera. Era berean oso beharrezko jotzen dute Zineklubek egindako lana eta harreman zuzena edukitzea, inongo bitartekaririk gabe. Topaketa hontan konturatu bait gara zineklub askok bitartekariak erabiltzen dituztela filmak lortzeko, zuzenean banatzaileera jo beharrean.

Horrek pelikula bakoitzeko gastuak areagotu egiten ditu. Zineklub askok ere ezagutzen ez zituzten filmak lortzeko aukera dagoela ikusi dute eta programa desberdinak ezagutu europar batasunak bultzatzen duen WRAP katalogoa adibidez.

Eguna amaitzeko Juliok proposatutako agiria onartu da, ondorengo 3 puntu nagusiekin:

- 1) Zineklubek autore zinema independente eta kalitatezko eskainiz, ikuslegoa sortzen eta hezten duten papera aitortzea.
- 2) Zubi iraunkorra sortzea zineklubak eta publikoaren artean, publikoari nazioarteko mailan dagoen zinema gerturatzea beti ere kalitate, jabego eta dibertsitate irizpideak kontuan izanda. Horretarako beharrezkoa denen beste zinema elkarte edo organismo ofizialekin elkarlana sustatuta.
- 3) Bertaratutako elkarteekin harremanetan sakontzea eta denontzako onuragarriak izango diren proiektu komunak aztertu eta ahal den neurrian aurrera eramatea.

